

Urteko Kontuen Memoria
Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa
2021 ekitaldia

Ordizian, 2022ko martxoaren 31an

Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa Patronatua

Upabi aldea 2
20240 ORDIZIA

Faxa
943.08.80.51

Telefonia
943.08.80.50

1. Datu orokorrak

Erregistro-zenbakia	F-254
Izena	FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA
Kalea	UPABI ALDEA, 2
Posta-kodea	20240
Udalerría	ORDIZIA
Lurralde Historikoa	GIPUZKOA
IFK	G75005306
Telefonoa	943.08.80.50
Ordezkaritzak edo egoitzak	HELBIDE SOZIALA

2. Harremanetarako pertsona

Harremanetarako pertsona Iñigo Aldasoro Múgica jauna da.

3. Fundazioaren izaera eta jarduera

SUESKOLAREN estatutuen arabera (3. artikulua), fundazioaren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde-eremu batzuetan baliabide iraunkorrak jartzea, trebakuntza eta prestakuntza emateko suteen prebentzio eta itzaltze arloan nahiz beste ikasgai osagarri batzuen inguruan; ondorengo hauek jendeari irakastea eta helaraztea eta jendeak hobeto ezagutu ditzan lortzea: pertsonak eta eraikinek jasaten dituzten arrisku egoeren aurrean izan beharreko portaera; eta enpresetako, lantokietako, ikastetxeetako nahiz etxeetako segurtasun neurriak eta horietan izaten diren suteak itzaltzeko teknikak; finean, salbamendua bere esanahirik zabalenean. Horretan guztian, erreferente izanik.

Enpresetako, suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuetako zein larrialdiei aurregiteko zerbitzuetako langileen eta pertsonen nahiz eraikinen gaineko arrisku egoerak kudeatzen dituzten beste edozein taldeen prestakuntzak honako hauek hartzen ditu bere barne: suteen prebentzio eta itzaltzearekin zerikusia duten gaitasun-atal guztiak; gehi osagarriak, hala nola, altuerako lanak, lehen sorospena, salbamendua eta abar.

Xede orokor horren barruan, jarduera zehatz hauek burutuko ditu nagusiki:

- Prestatzaile adituen bidez ezagutza kudeatzea.
- Irakaskuntzaren bidez, ezagutza transmititzea eta aipatutako arloetan jarrerak eta abileziak sustatzea.
- Profesionalak segurtasun-arloko teknologia berrietan eta araudian trebatzea.
- Gizartean autobabesaren kultura sustatzea.
- Segurtasunerako protokoloak eta gidak sortzea.
- Aldizkariak, buletinak eta, oro har, argitalpenak editatzea, SUESKOLAREN jarduera eta xedea osatzen duten gaiak dibulgatzeko.
- Itunak eta hitzarmenak sinatzea fundazioari bere helburuak lortzen lagun diezaiokeen edozein entitaterekin.
- Eta beste edozein jarduera, fundazioaren helburuak erdiesteko balio badute betiere.

Fundazioaren helburuak egoki iritzitako moduan garatuko ditu SUESKOLAK, beste entitate edo erakunde batzuetan parte hartuz ere bai, muga bakarrak izanik fundazio-gutunean, estatutu hauetan eta legeetan datozenak.

Halaber, estatutu hauetan jasotako helburuen barruan, edozein kontratazio prozeduretan parte hartu ahal izango du.

4. Patronatuko kideak 2021eko abenduaren 31n

Presidentea	Eider Mendoza Larrañaga	Gipuzkoako Foru Aldundia
Presidenteordea	Josu Idigoras Eguia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Kidea	Arantxa Ariztimuño Larraza	Gipuzkoako Foru Aldundia
Kidea	Miguel Angel Crespo Rico	Gipuzkoako Foru Aldundia
Kidea	Iker Estensoro Sarasola	Gipuzkoako Foru Aldundia
Kidea	M ^a Victoria Zabala Fernández	Gipuzkoako Foru Aldundia

5. Patronatuan partaidetza handiena duten erakundeak

Bere estatutuen 1. artikuluan xedatzen den lez, Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa euskal sektore publikoko fundazioa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 63.1 artikuluari jarraikiz; hain justu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikokoa, aipatu lurralde historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarriari jarraikiz.

Gaur egun, Fundazioaren Patronatua 6 kidek osatzen dute: guztiak ere Gipuzkoako Foru Aldundiko kargu publikodunak (foru diputatu bat eta bost zuzendari nagusi).

6. Ekitaldian izan diren aldaketak Patronatuko kideen artean

2021ekitaldian ez da aldaketarik izan Patronatuko kideen artean. Hona hemen Fundazioaren Patronatuaren osacra 2021eko abenduaren 31n, sexuaren arabera banatua:

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Patronatuko kideak	3	3	6
Patronatuko laguntzaileak	-	-	-
Guztira	3	3	6

7. Patronatuko kideen ordainsari orokorrak

Inork ez du Patronatua ordeztegatik ordainsaririk jaso.

8. Patronatuko kideen eta Fundazioaren arteko kontratuzko harremanak

Patronatuko kideen eta Fundazioaren artean ez dago kontratuzko harremanik.

9. Eskuordetze eta ahalordetzeak

Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa 2009ko uztailaren 13an eratu zen. Ekitaldi hartan, karguak izendatu ziren eta ahalordetzeak eman zitzaizkien Patronatuko eta Fundazioko lehen presidenteari eta Fundazioko zuzendariari.

Patronatuko lehendakari Eider Mendoza Larrañaga andrearen eta fundazioko zuzendari Iñigo Aldasoro Múgica jaunaren ahalordetzeetan ez da aldaketarik izan 2021 ekitaldian.

10. Ekitaldian egindako jardueren laburpena

2021eko ekitaldian, SUESKOLA Fundazioak 3.200 pertsona pasatxo trebatu ditu suteak prebenitzeko eta itzaltzeko arloan. Kopuru hori 2019an prestakuntza jaso zuten pertsonen kopurua baino txikiagoa da (4.000 inguru), baina nabarmen handiagoa da 2020an prestakuntza jaso zuten pertsonen kopurua baino (2.400 pertsona). Azken ekitaldi hori COVID-19ren pandemiak oso baldintzatuta egon zen eta 2021ean berriz, lehen seihilekoan pandemiaren karga oraindik handi bazen ere, bigarren seihilekoan jarduera normaltasunez aurrera eramaten hasi zen.

SUESKOLAK Ordiziako instalazioetan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ispasterreko maniobra-parkean egin ditu jarduera horiek.

Ikasleak kolektibo hauetakoak izan dira:

- Partikularrak.
- Enpresetako langileak.
- Suhiltzaileak.
- Larrialdi-zerbitzuetako eta babes zibileko kideak, profesionalak eta boluntarioak.

Prestakuntza-zentro batzuetako kideak ere prestatu ditugu.

Halaber, prestakuntza-jarduera horiez gain, SUESKOLA Fundazioak sentsibilizazio-jarduerak ere egin ditu, adibidez:

- Suteen prebentzioari buruzko aurkezpen eta jarduerak ikastetxe eta udalekuetako haurrekin.
- Agerpenak hedabideetan, hainbat ezbeharren sorburuaren berri emateko, jendea sentsibilizatzeko eta aholkuak emateko.
- Etxebizitzetan neguko suteak prebenitzeko informazio-kanpaina.
- Udar baso-suteak prebenitzeko informazio-kanpaina.
- San Joan bezperako suak direla eta ezbeharrak eta suteak prebenitzeko informazio-kanpaina.
- Tximinietan sortzen diren suteak prebenitzeko informazio-kanpaina.
- Petardoak gaizki erabiltzearen ondoriozko istripuak eta suteak prebenitzeko informazio-kanpaina.

11. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

Irudi fidela

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontu laburtuak Fundazioaren kontabilitate-erregistroetan eskuratu dira, eta ezarri beharreko finantza-informazioaren arauesparruaren arabera eta, bereziki, arau-esparru horretan jasotako kontabilitate-printzipio eta-irizpideekin bat aurkeztu dira. Beraz, zehaztasunez adierazten dituzte egun horretan amaitutako urteko ekitaldiko ondarea, finantza-egoera eta eragiketen emaitzak.

Fundazioaren 2021eko ekitaldiari dagozkion urteko kontu laburtuak Patronatuak formulatu ditu, eta haren esanetara jarriko dira, onar ditzan. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko dituela uste dugu.

Patronatuak, 2021eko ekainaren 10ean bildurik, 2020ko ekitaldiko urteko kontuak onartu zituen

Fundazioari aplikatzeko finantza-informazioaren arau-esparrua honako hauetan zehazten da:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legean, eta EAeko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzeko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuan.

2. Irabazi-asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Planean (Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez onartutakoan) eta arau horren ondorengo aldaketetan. Zentzu honetan, 2021eko urtarrilaren 30ean, irabazi-asmorik gabeko entitateei Kontabilitate Plan Orokorra Egokitzeko Arauak aldatzen dituen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua argitaratu da BOEn. 1/2021 Errege Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorraren 1) atalari jarraiki, Fundazioak irizpide berriak aplikatzearen alde egin du, 2021eko urtarrilaren 1a trantsizio-data gisa hartuz, eta 2021eko ekitaldiko urteko kontu laburtuetan konparaziorako sartu diren 2020ko ekitaldiari dagozkion zifrak ez dira irizpide berrien arabera egokitu, hargatik eragotzi gabe

2. Xedapen Iragankorreko 6 e) atalaren aplikazioaren baitan aurreko ekitaldiko instrumentu finantzarioen birsailkapenak (4.e eta 4.f oharrak).

3. Kontabilitate Plan Orokorra eta beraren arau osagarriak garatzeko, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak onartutako nahitaezko arauetan.

4. Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate-araudian.

Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak

Fundazioak funtzionamenduzko enpresaren printzipioari jarraikiz zehaztu ditu finantza-egoerak, eta ez dago hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioak alda ditzakeen arrisku garrantzitsurik.

Urteko kontu laburtuei dagokienez, batzuetan Fundazioko Zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili dira, erregistratuta dauden aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko.

Zenbatespen horiek urteko kontu hauek egiterakoan aztertutako gertakarien gainean zegoen informazio onenarekin egin baziren ere, gerta daiteke gerora sor daitezkeen gertakarien ondorioz hurrengo ekitaldietan zenbatespen horiek aldatu behar izatea (gorantz edo beherantz). Hori, betiere, modu prospektiboan egingo litzateke, kontuan hartuta zenbatespen-aldaketek geroko galeren eta irabazien kontuetan zer eragin izan ditzaketen.

Informazioa alderatzea

Urteko kontuetan, informazioa alderatzeko, 2021ko ekitaldiari eta aurreko ekitaldiari dagozkion datu hauek jaso dira: egoera-balantzearen partidak, galeren eta irabazien kontua eta ondare garbiaren aldaketen egoera. Halaber, 2021ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldiko memoria honetako informazioa 2020ko informazioarekin alderatu dugu.

Fundazioak, Kontuen Auditoretzaren Legea garatzeko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz, 2020ko eta 2021ko ekitaldietako urteko kontuak ikuskatu behar ditu.

Ingurumenari buruzko informazioa

Fundazioaren jarduera dela eta, ez du ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei dagokienez garrantzitsua izan daitekeen ingurumen-arloko erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura eta kontingentziarik. Horregatik, urteko kontuen memoria honetan ingurumen-gaiak ez ditugu banakatu.

12. Balorazio-arauak

2021eko ekitaldiko urteko kontuak egiteko, Kontabilitate Plan Orokorren arabera, kontabilitate-irizpide hauek erabili ditugu:

a) Ibilgetu ukiezina

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabiltzeko lagatako eraikinak 25 urtean amortizatzen dira.

Ibilgetu ukiezinean erregistratutako partidak, aplikazio informatikoekin eta horiek garatzeko emandako aurrerakinekin osatuak, erosketa-prezioarekin ageri dira.

Elementu horiek linealki amortizatzen dira, erosi eta bost urtera.

Fundazioak bere jarduera nagusia gauzatzeko duen eraikina gutxienez 25 urtean erabil dezake, jabari publikoko ondasunaren erabilera pribatiborako Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2015eko ekainaren 22an sinaturiko emakida administratiboko kontratuaren arabera. Emakida doakoa da, Fundazioak ez duelako irabazi-asmorik eta higiezina bere xedeetarako erabiltzen duelako, hau da, interes orokorreko helburu bat lortzeko (bigarren eta hirugarren klausulak).

Elementu horiek linealki amortizatzen dira, 25 urtean, lagatako egunetik kontatzen hasita.

Fundazioak ibilgetu higiezinaren narriaduragatiko balorazio-zuzenketak eta narriaduragatiko galeren itzultzeak ebaluatzen eta zehazten ditu aktibo ez finantzarioen balioaren narriadurari buruzko 4.c atalean aipaturiko irizpideen arabera.

b) Ondare historikoa osatzen duten ondasunak

Fundazioak ez du ondare historikoko ondasunik.

c) Ibilgetu materiala

Eskurapen-prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera baloratzen da; horrek barne hartzen ditu, zenbateko fakturatuaz gain (prezioaren beherapenak kendu ondoren), martxan jartzen den arte sortutako gastu osagarri eta zuzenak, adibidez: lur-berdinketa eta eraispena, garraioa, aseguruak, instalazioa, muntaketa eta antzekoak. Fundazioak, erabiltzeko, ustiatzeko edo saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duen ibilgetu materialaren kostuan, finantziario espezifiko edo orokorrek zuzenki duten finantza-gastuak sartzen ditu, betiere eskurapen, eraikuntza edo ekoizpenari zuzenean egozgarriak badira. Ibilgetu materialaren balioaren parte da, halaber, elementuak deuseztatu edo kentzetik eratorritako edo aktiboari loturiko betekizunen (birgaitze-gastuak, adibidez) egungo balioaren hasierako zenbatespena, baldin eta betekizun horien ondorioz hornidurak erregistratu behar badira.

Fundazioak ez du aktibo-ondasunak deuseztatzeko, kentzeko edo birgaitzeko konpromisorik. Hori dela eta, aktiboetan ez dira kontabilizatu etorkizuneko betekizun horiek estaltzeko balioak.

Fundazioaren gobernu-organoaren iritziz, aktiboen kontabilitate-balioa ez da haien balio berreskuragarria baino handiagoa.

Ibilgetu materialeko elementu baten balioaren nariaduragatik galera erregistratzen da bere kontabilitate-balio garbia dagokion zenbateko berreskuragarria baino handiagoa bada; zenbateko berreskuragarria honela kalkulatu da: zenbateko handiena zati arrazoizko balioa ken salmenta kostuak eta erabilera-balioa.

Fundazioak egindako obra eta lanek dagozkien ekitaldiko gastuak dagozkien gastu-kontuetan zordunduko dira. Ekoizpen-ahalmena handitzea eta ondasunen bizitza erabilgarria luzatzea dakarten handitze- edo hobekuntza-kostuak aktiboan balio handiago gisa sartzen dira. Aribideko ibilgetu materialaren kontuak gastu horien zenbatekoaren arabera zorduntzen dira, Fundazioak beretzat egindako lanak jasotzen dituen diru-sarreraren partidan abonatuta.

Ibilgetu materialeko elementuak martxan jartzeko moduan dauden unetik amortizatzen dira, linealki, dagokien bizitza erabilgarri estimatuan, hondar-balio nuluarekin, bizitza erabilgarriko urte hauen arabera:

<u>Ondasuna</u>	<u>Urteak</u>
Eraikinak	25
Instalazio teknikoak	6-7
Beste instalazio batzuk	6-7
Tresneria	3-5
Altzariak	6-7
Informazio-prozesuetarako tresnak	4

Halaber, hauek dira ibilgetu materialeko partidei aplikatzen zaizkien amortizazio-koefizienteak:

<u>Ondasuna</u>	<u>Koefizientea</u>
Eraikinak	% 3
Instalazio teknikoak	% 15
Beste instalazio batzuk	% 15
Tresneria	% 30
Altzariak	% 15
Informazio-prozesuetarako tresnak	% 25

d) Dirulaguntza, dohaintza eta legatuak

Itzulgarriak ez diren kapital-dirulaguntzak emandako zenbatekoaren arabera baloratzen dira. Hasieran ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa aintzatesten dira, zerga-eragina kontuan hartu gabe, eta emaitzei egotzen zaizkie aldi horretan dirulaguntza horiekin finantzaturako aktiboek izandako balio galeraren arabera; hori, balioa galdu ezin duten aktiboak badira izan ezik, horrelakoetan aktiboak besterendu edo inbentariotik kendutako ekitaldiko emaitzari egotzen baitzaizkio.

Gastu espezifikoak finantzatzeko ematen diren dirulaguntzak diru-sarrera gisa egotziko dira finantzatzen dituzten gastuak sortzen diren ekitaldian.

e) Finantza-tresnak

Orain Fundazioak zer finantza-tresna erregistratu dituen eta zer kalifikazio- eta balorazio-irizpide erabili dituen azalduko dugu.

1. Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak gure kudeaketaren edo gure negozio-ereduaren arabera sailkatuzera igaro dira, finantza-aktiboak eta horien diru-fluxuen kontratu-terminoak kudeatzeko.

Finantza-aktiboen (FA) sailkapena, aktibo korranteak edo ez-korranteak izan, kategoria hauetan baneraten da: kostu amortizatuko FA, ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balio FA, kostuko FA eta galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balio FA.

Fundazioak, urteko kontu laburtuetan, **Kostu amortizatuko FA** kategorian sailkatutako finantzaaktiboak soilik aurkezten ditu. Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartzen da, baldin eta Fundazioak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak eragiten badituzte, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez direnak.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko kredituak (Fundazioaren trafiko-eragiketengatiko zerbitzuen prestazioan sortutakoak, kobrantza geroratuarekin) eta eragiketa ez-komertzialengatiko kredituak (Fundazioak emandako mailegu- edo kreditueragiketetatik datozenak).

Hasiera batean arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interestasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketengatiko kredituak, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, balio nominalaren arabera balioetsiko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Ondorengo balorazioa kostu amortizatuan egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontu laburtuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominalen balioesten diren kredituak zenbateko horretan balioesten jarraituko dira, narriatu ez badira salbu.

Fundazioak dagozkion narriadurak erregistratzen ditu, kobratzeko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren (etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratua hasierako kontabilizazioan kalkulaturako interes-tasa efektibora deskontatuta) eta erregistratuta dauden liburuetako balioaren artean dagoen aldeagatik. Ekitaldi-itxieran, gutxienez, beharrezko balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta kategoria horretan sartutako finantza-aktibo baten balioa narriatu egin dela adierazten duen ebidentzia objektiboa badago. Zuzenketa horiek galdu-irabazien kontu laburtuan kontabilizatzen dira.

2. Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak gure kudeaketaren edo gure negozio-ereduaren arabera sailkatzera igaro dira, finantza-pasiboak eta horien diru-fluxuen kontratu-terminoak kudeatzeko.

Finantza-pasiboak, baloratzerakoan, **Kostu amortizatuko finantza-pasiboen** kategorian sartzen dira. Kategoría honen barruan finantza-pasibo guztiak sailkatzen dira, galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioeko pasibo gisa baloratu behar direnean izan ezik.

Oro har, kategoría honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko zorrak eta eragiketa ezkomertzialengatiko zorrak.

Hasieran, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira, zuzenean egotz dakizkikeen transakzio-kostuen arabera doituta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes tasarik ez duten zorrak eta partaidetzen gainean hirugarrenek eskatutako ordainketak, zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero denean, balio nominalaren arabera balioetsiko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Ondorengo balorazioa kostu amortizatuan egiten da. Sortutako interesak galdu-irabazien kontu laburtuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten zorrak, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominalaren arabera balioesten badira, zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira.

Finantza-pasiboek baja ematen zaie sortu dituzten obligazioak azkentzen direnean.

f) Kaleratzeagatiko kalte-ordainak

Arrazoizko kuantifikazioa behar duten kaleratzeagatiko kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira kaleratzeko erabakia hartutako ekitaldian.

g) Irabazien gaineko zerga

Zerga korrontearen gastua zerga korrontearen gastua eta zerga geroratua batuz zehazten da. Zerga korrontearen gastua zehazteko, indarrean dagoen karga-tasa zerga-irabaziarik aplikatzen zaio eta emaitza ekitaldian aplikatutako hobari eta kenkari orokorren zenbatekoan minoratzen da.

Zerga geroratuen aktibo eta pasiboak denborazko diferentzietatik datoz; diferentzia horiek etorkizunean ordaintzea edo berreskuratzea aurreikusitako zenbatekoak dira, zeinak aktibo eta pasiboek liburuetan duten balioaren eta horien zerga-oinarrien arteko aldetik eratortzen diren. Zenbateko horiek denborazko diferentziari berreskuratzea edo likidatzea espero den karga-tasa aplikatuz erregistratzen dira.

Zerga geroratuen aktiboak, halaber, konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboen eta sortu baina aplikatu gabeko kenkari fiskalen kredituen ondorioz sortzen dira.

Zerga geroratuen pasiboa denborazko diferentzia egozgarri guztientzat aintzatesten da, salbu denborazko diferentzia merkataritza-funts baten hasierako aintzatespenetik edo beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aintzatespenetik (negozio-konbinazioetan izan ezik) eratorria bada, eta eragiketak, gauzatutakoan, ez badu zerga- eta kontabilitate-eraginik.

Denborazko diferentzia kengarriekin identifikatutako geroratutako zergen aktiboak aintzatesten dira, soilik, irizten bazaio Fundazioak etorkizunean aktibo horiek diru bihurtzeko zerga-irabazi nahikoa izango duela eta zerga- eta kontabilitate-emaizan eraginik ez duen eragiketa bateko beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aintzatespenetik ez badatoz (negozio-konbinazioetan salbu). Geroratutako zergen gainerako aktiboak (zerga oinarri negatiboak eta konpentsatzeko dauden kenkariak) aintzatesten dira, soilik, irizten bazaio Fundazioak etorkizunean aktibo horiek diru bihurtzeko zerga-irabazi nahikoa izango duela.

Kontabilitatea ixten den bakoitzean, erregistratutako zerga geroratuak aztertzen dira (aktiboak eta pasiboak), indarrean daudela egiaztatzeko; egoki iritziz gero, zerga geroratuak zuzendu egiten dira, egindako analisien emaitzen arabera.

Zerga geroratuen gastu edo sarrera bat dator zerga geroratuen pasibo eta aktiboen aintzatespen eta balio gabetzearekin eta, halaber, hala badagokio, kenkariak eta dirulaguntza-izaera ekonomikoa duten gainerako zerga-abantailak kontabilizatzearen ondoriozko ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera aintzatestearekin eta galera-irabazien kontuari egoztearekin.

Gure erakundeak, apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan ezarritako zerga-araubideaz gozatzeko baldintzak betetzen dituenek, Foru Arau horretan ezarritako irizpideak aplikatzen ditu. Foru arau hori irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoa da.

h) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira, haietatik eratorritako diru- edo finantza-korrontea noiz gertatzen den kontuan hartu gabe.

Hala ere, Fundazioak ekitaldi amaierarako gauzatzen diren mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu; aurrez ikus daitezkeen arriskuak eta galerak (baita balizkoak) haien berri izan bezain laster kontabilizatzen baitira.

13. Aktibo ibilgetua

Hona hemen ibilgetu ukiezinaren eta ibilgetu materialaren kontuetan izandako mugimenduak:

BALIO GORDINA	Ibilgetu ukieztina	Ibilgetu materiala	Higieztinen inbertsioak
Hasierako saldoa 2020	1.984.060,00	298.739,22	
(+) Sarrerak	818,29	31.747,08	
(-) Irteerak			
Amaierako saldoa 2020	1.984.878,29	330.486,30	
(+) Sarrerak		37.902,75	
(-) Irteerak			
Amaierako saldoa 2021	1.984.878,29	368.389,05	

AMORTIZAZIO METATUA	Ibilgetu ukieztina	Ibilgetu materiala	Higieztinen inbertsioak
Hasierako saldoa 2020	339.210,30	208.134,09	
(+) Amortizaziorako zuzkidura 2020	66.113,40	36.642,91	
(+) Erosketak eta/edo eskualdaketak			
(-) Irteerak, bajak, murrizketak eta/edo eskualdaketak			
Amaierako saldoa 2020	405.323,70	244.777,00	
(+) Amortizaziorako zuzkidura 2021	66.277,06	34.801,80	
(+) Erosketak eta/edo eskualdaketak			
(-) Irteerak, bajak, murrizketak eta/edo eskualdaketak			
Amaierako saldoa 2021	471.600,76	279.578,80	

Ekitaldiaren hasierako saldo garbia	1.579.554,59	85.709,30	
Ekitaldi amaierako saldo garbia	1.513.277,53	88.810,25	

2021eko ekitaldian egindako 37.902,75 eurotako inbertsioen deskribapena:

- **Ibilgetu materiala:**
 - Instalazio teknikoak: 16.803,13 euro.
 - Tresneria: 5.615,32 euro.
 - Altzariak: 0,00 euro.
 - Ekipamendu informatikoa: 0,00 euro.
 - Ibilgailuak: 15.484,30 euro.
- **Ibilgetu inmateriala:**
 - Aplikazio informatikoak : 0,00 euro.

14. Ondare historikoko ondasunak

Fundazioak ez du Ondare Historikoko ondasunik.

15. Berezko jardueraren erabiltzaileak eta beste zordun batzuk

Kontzeptua	2.021	2.020
Jardueraren zordunak	53.370,27	44.250,21
Beste batzuk		
AMAIERAKO SALDOA	53.370,27	44.250,21

Jardueraren helburu diren erabiltzaileen saldo zordunak jaso ditugu.

16. Beste zordun batzuk

Kontzeptua	2.021	2.020
Administrazio Publikoak	37.075,38	77.486,87
Beste zordunak		
AMAIERAKO SALDOA	37.075,38	6.846,44

“Administrazio publikoak” ataleko 37.075,38 euroak honela banatzen dira: 2021eko abenduaren 31n kobratu gabe zegoen HOBETUZ Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren 2020ko dirulaguntza (1.980,00 euro); Arkauteren 35.095,38 euro, 2021eko ekitaldiari dagokiona eta ordaintzeko dagoena oraindik.

17. Dirulaguntza, dohaintza eta legatuak

Ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiaren 160.000 euroko dirulaguntza bat jaso dugu, Fundazioaren 2021eko ekitaldiko jarduera arrunta finantzatzeko. Bestalde, ARKAUTErekin 2021ean sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren arabera, 410.095,38 euroko beste dirulaguntza bat jaso zen.

2021ean HOBETUZen 1.980,00 euroko dirulaguntza bat jaso dugu, zeinak SUESKOLAREN prestakuntza-jarduera estrategikoak gauzatzeko laguntza ekonomikoak barne hartzen dituen. Halaber, Fundación Tripartita erakundearen eskutik beste 2.722,26 euro jaso ditugu 2021ean.

Ekitaldira pasatako dirulaguntza, dohaintza eta legatuen atalean 92.217,24 euro daude, partida hauetan honela banatuta: 26.103,84 euro Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenari dagozkio, inbertsioetarako; eta beste 66.113,40 euro SUESKOLA eraikinaren lagapenari dagozkio.

18. Epe motzerako hartzekodunak

Kontzeptua	2.021	2.020
Administrazio Publikoak	50.181,79	51.287,80
Hartzekodunak	57.892,40	80.074,32
AMAIERAKO SALDOA	108.074,19	131.362,12

"Administrazio Publikoak" atalean honako hauek daude jasota: BEZaren saldo hartzekoduna (6.582,20 euro), PFEZaren atxikipenak (27.561,92 euro), Gizarte Segurantza (15.850,65 euro) eta Geroa (175,02 euro). Ordaintzeke dauden soldatak berriz 11,95 euro dira.

Hartzekodunen atalak hainbat zerbitzutako zorrak barne hartzen ditu.

19. Epe motzerako zorrak

Kontzeptua	2.021	2.020
Zorrak kreditu-entitateekin	80.000,00	80.000,00

2020ean 150.000,00 euroko mugarekin sinatutako kreditu-kontua kitatu ondoren, Fundazioak berme personala duen kreditu-kontu berri bat sinatu du 2021eko irailaren 21ean KUTXABANKekin. Kreditu-kontu berri horren muga ere 150.000 eurokoa da eta urtebeteko epemuga du; 2021eko abenduaren 31n 80.000,00 euro erabilita zeuden. Kontratuan indarrean dagoen interes-tasa %1,5ekoa da lehenengo 3 hilabeteetan, eta EURIBOR (3 hilabete) gehi 1,5 puntuko diferentziala hurrengo 9 hilabeteetan.

20. Abalak

2021eko abenduaren 31n, Fundazioak hirugarrenen aurrean 72.500 euroko abalak ditu Kutxabanken; eta, 2020ko abenduaren 31n, berriz, 72.500 euroko abalak zituen.

21. Ekitaldiko sarrera guztien xehetasunak

Kontzeptua	2.021	2.020
Laguntzaile, babesle eta erabiltzaileen ekarp.	635.176,45	470.414,66
Finantza-sarrerak eta ohiz kanpokoak		
Ustiapenerako diru-laguntzak	574.797,64	702.372,13
	1.209.974,09	1.172.786,79

635.176,45 euroko zenbatekoa kontzeptu hauen batura da: bezero erabiltzaileen fakturazioa, 557.501,88 euro; BABESA SUZAI SA, PRODUCTOS MESA, LAVANDERIA LIZARRA SL eta Transportes VICUÑA SA enpresen publizitate-babesaren ekarpenak, 47.674,57 euro; eta BIDELAN SA, ORKLI SCoop. eta CAF SA erakunde laguntzaileen ekarpenak, 30.000 euro.

"Ustiapenerako dirulaguntzak" atalean 17. puntuan aipaturiko dirulaguntzak sartzen dira, guztira 574.797,64 euro.

22. Sarrera publiko eta pribatuen eta Fundazioaren berezko jardueraren arteko bereizketa

Kontzeptua	2.021	2.020
Erakunde publikoen diru-sarrerak	574.797,64	699.448,04
Diru-sarrera pribatuak	77.674,57	79.121,14
Fundazioaren jarduera propioa	557.501,88	394.217,61
	1.209.974,09	1.172.786,79

SUESKOLA Fundazioa: erakunde publikoei fakturatutakoa

Erakunde publikoak	2021	2020
POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA	0,00	0,00
ANDOAINGO UDALA	2.186,60	0,00
DONOSTIAKO UDALA	2.256,76	2.184,00
ARABAKO FORU ALDUNDIA	19.414,00	6.992,80
ARRASATEKO UDALA	0,00	0,00
LEGAZPIKO UDALA	0,00	0,00
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	315.900,89	242.746,42
MADRILGO UDALA	0,00	0,00
BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA (EHU)	14.380,28	10.064,36
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	7.460,57	6.208,12
OSAKIDETZA	0,00	0,00
EASO POLITEKNIKOA GLHBI	1.000,00	350,00
IZFE SA	218,66	0,00
PASAIKO ITSAS ARRANTZA ESKOLA	11.869,62	12.271,98
ULIAZPI	0,00	0,00
CACERESEKO DIPUTAZIOA	14.183,28	14.183,28
MURGIKO INSTITUTOA	320,00	0,00
	GUZTIRA: 389.190,66	295.000,96

23. Ekitaldiko gastu guztien xehetasunak

Kontzeptua	2.021	2.020
Jarduerako kontsumoak		
Izakinen aldakuntza dela eta gastuak	-2.652,69	3.747,75
Pertsonalaren gastuak	655.783,44	693.069,38
Kanpo zerbitzuak	544.732,18	445.417,44
Amortizazioak	101.078,86	102.756,31
Gastu finantzieroa	2.908,34	1.915,87
	1.301.850,13	1.246.906,75

24. Administrazio-gastuen xehetasunak

Kontzeptua	2021	2020
Kudeatzailtzako pertsonal-gastuak	84.368	83.753
Patronatuko kiden dietak	0	0
Kanpoko gastuak	4.697	5.052
	89.065	88.805

Kanpoko gastuak: zerga-, kontabilitate- eta zuzenbide-arloko aholkularitzari dagozkion partidak.

- Auditoreen ordainsariak**

2021eko ekitaldian, kontu-auditoretzako zerbitzuei dagozkien ordainsariak, erakundeko auditoreak emandako beste zerbitzu batzuk barne, 3.360 eurokoak izan dira, eta 3.105 euro dagozkio 2021eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko urteko kontu laburtuen auditoretzari, eta gainerakoa emandako beste zerbitzu batzuei.

2020ko ekitaldian, kontu-auditoretzako zerbitzuei dagozkien ordainsariak, erakundeko auditoreak emandako beste zerbitzu batzuk barne, 3.300 eurokoak izan ziren, eta 3.050 euro 2020ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko urteko kontu laburtuen auditoretzari zegozkion, eta gainerakoa, harriz, emandako beste zerbitzu batzuei.

Zenbateko horietan sartzen dira 2021eko eta 2020ko ekitaldietako zerbitzuei dagozkien ordainsari guztiak, fakturatzeko unea edozein izanda ere. Ordainsari horietan ez dira sartzen aholkularitza fiskalari dagozkionak.

25. Kudeatzailtzan izandako aldaketak

2021eko ekitaldian Kudeatzailtzan ez da aldakuntzarik izan.

26. Berezko kudeatzailtza edo zuzendaritza, hirugarrenak kontratatuz

Fundazioko kudeatzailtza kudeatzailtzako lan-kontratu baten bitartez gauzatu da.

27. Ekitaldiko batez besteko langile-kopurua

Mota	2021	2020
Soldatako langileak	11,84	12,51
Borondatezko langileak	0	0
	11,84	12,51

Hona hemen azken 2 ekitaldietako batez besteko plantilla, kategorien eta sexuaren arabera sailkatuta:

KONTZEPTUA	2021			2020		
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Zuzendaria	1,00		1,00	1,00		1,00
Ikasketa burua		1,00	1,00		1,00	1,00
Administrazioa		1,00	1,00		1,00	1,00
Mantentze-lanak	2,42		2,42	3,00		3,00
Formatzaileak	5,42	1,00	6,42	4,51	2,00	6,51
GUZTIRA	8,84	3,00	11,84	8,51	4,00	12,51

28. Ikuskatzeko betekizuna eta garrantzi ekonomikoa (bai/ez)

Kontzeptua	Egungo ekit.	Aurreko ekit.
Kanpo-auditoria egiteko betekizuna	BAI	BAI
Zerbitzu ordainduak > doakoak	BAI	BAI
Merkataritza-jarduerak egiten ditu	EZ	EZ
Merkataritza-sozietateetan parte hartzen du	EZ	EZ
Jardueren bolumena > 3.005.385,65 €	EZ	EZ
Langile-kopurua > 50	EZ	EZ
Aktiboa > 2.374.245,66 €	EZ	EZ
Negozio-zifra > 4.748.509,32 €	EZ	EZ

29. Fundazio-zuzkidura ekitaldiaren amaieran

Fundazio-zuzkidura 30.001,00 eurokoa zen 2021eko abenduaren 31n. Fundazioa eratu zenetik ez da aldatu eta Fundazioaren sustatzaileak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, jarri zuen oso-osorik.

30. Ekitaldiko emaitza

629,95 euroko emaitza positiboa "aurreko ekitaldietako emaitza soberakinen" kontura bideratzea proposatzen da, fundazioaren funts soziala gehitzeko.

31. Zerga-egoera

Mozkinen gaineko zerga

Fundazioari aplikatu beharreko zerga-araubidea apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, ezarritakoa da.

Araubide horren arabera, erakundearen helburu sozial edo xede espezifikoak betetzeko jarduerak gauzatzetik eratorritako errentak Sozietateen Gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita daude.

Kontabilitate-emaitza zerga-oinarriarekin bateratzea

	Igoerak	Jaitsierak	
KONTABILITATE-EMAITZA			629,95
Sozietateen Gaineko Zerga			
Diferentzia iraunkorrak		629,95	
Aldi baterako diferentziak			
- Sorburua ekitaldian dutenak			
- Sorburua aurreko ekitaldietan dutenak			
Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa			
ZERGA-OINARRIA			0,00

Kontabilitatetik kanpoko doitze iraunkorrak 3/2004 Foru Arauan aipaturiko jarduerak salbuestetik eratorriak dira.

32. Kontabilitate-arau berrietara igarotzearen ondorioak

Fundazioari aplikatzeko finantza-informazioaren arau-esparrua honako hauetan zehazten da:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legean, eta EAEko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzeko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuan.

2. Irabazi-asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Planean (Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez onartutakoan) eta arau horren ondorengo aldaketetan.

Zentzu honetan, 2021eko urtarrilaren 30ean, irabazi-asmorik gabeko entitateei Kontabilitate Plan Orokorra Egokitzeko Arauak aldatzen dituen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua argitaratu da.

BOEn. 1/2021 Errege Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorraren 1) atalari jarraiki, Fundazioak irizpide berriak aplikatzearen alde egin du, 2021eko urtarrilaren 1a trantsizio-data gisa hartuz, eta 2021eko ekitaldiko urteko kontu laburtuetan konparaziorako sartu diren 2020ko ekitaldiari dagozkion zifrak ez dira irizpide berrien arabera egokitu, hargatik eragotzi gabe 2. Xedapen Iragankorreko 6 e) atalaren aplikazioaren baitan aurreko ekitaldiko instrumentu finantzarioen birsailkapenak (4.e eta 4.f oharrak).

3. Kontabilitate Plan Orokorra eta beraren arau osagarriak garatzeko, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak onartutako nahitaezko arauetan.

4. Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate-araudian.

33. Finantziario-taula

Erabilerak	2.021	2.020	Jatorriak	2.021	2.020
Eragiketetan erabilitako baliabideak	1.302.191,33	1.172.786,79	Eragiketetatik sortutako baliabideak	635.176,45	470.414,66
Ezarketa zorrak eta formaliz. gastuak			Ekarpenak	-66.587,29	-144.202,97
Ibilgetuak eskuratzea	-63.541,11	-70.490,94	Kapital diru-lag., doahin. eta legatuak	667.014,88	702.372,13
Fundaz. edo sorrer. zuzkidura gutxitzea			Epe luzeko zorrak		
E/m-ko zorrak kita. edo e/l-ra trasp.			Ibilgetuen besterentzeak		
Arrisku eta gastuetarako zuzkidura			Ibilg. fin-en aurr. edo e/m-ra trasp.		
Erabilerak guztira	1.238.650,22	1.102.295,85	Jatorriak guztira	1.235.604,04	1.028.583,82
Jatorri gehieg. erabileren gain (Kapit. zirkulatz. gehitzea)	-3.046,18	-73.712,03	Jatorr. gehieg. erabileren gain (Kapit. zirkulatz. gutxitzea)	0,00	0,00

Kapital Zirkulatuzailearen Aldaketa	2021 Ekitaldia		2020 Ekitaldia	
	Igoerak	Gutxipenak	Igoerak	Gutxipenak
1. Fundatzaileak eta beste eskatutako ordainketengatik				
2. Izakinak	2.626,39			3.677,02
3. Zordunak		31.291,43		145.658,54
4. Hartzekodunak	23.287,98		92.580,97	
5. Aldizkako finantza-inbertsioak				
6. Diruzaintza	2.020,53			19.275,21
7. Egokitzapenak aldizkatzeagatik	310,35		2.317,77	
GUZTIRA	28.245,25	31.291,43	94.898,74	168.610,77
KAPITAL ZIRKULATZAILEAREN ALDAKETA	-3.046,18		-73.712,03	

34. 2021eko sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioa

Partidak	Aurrekontua	Gauzaturik	Desbiderapena	Partidak	Aurrekontua	Gauzaturik	Desbiderapena
FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK				FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK			
1. Entitatearen gastuak jarduera propioagatik a) Diru-laguntzak				1. Entitatearen diru-sarrerak jarduera propioagatik a) Erabiltzaileen eta afiliatuen kuotak b) Promozio, babesle eta laguntzaileen diru-sarrerak	1.294.419,25 488.411,59	1.302.191,33 557.501,88	-7.772,08 -69.090,29
b) Lankidetzagastuak eta patronatukoak		-2.652,69	2.652,69	c) Diru-laguntzak, donaintzak eta legatuak	105.493,97	77.674,57	27.819,40
2. Ustiapen kontsumoak				2. Salmentak eta beste diru-sarrera arrunt batzuk	700.513,69	667.014,88	33.498,81
3. Pertsonaleko gastuak	705.551,74	655.783,44	49.768,30	3. Beste diru-sarrera batzuk			
4. Ibilgetuaren amortizazioetarako zuzkidurak	93.938,28	101.078,86	-7.140,58	4. Finantza-sarrerak			
5. Beste gastu batzuk	492.804,23	544.732,18	-51.927,95	5. Ez-ohiko diru-sarrerak	288,75		-288,75
6. Jardueraren hornidura-aldaketak eta kreditu kobrazinen galerak							
7. Finantza-gastuak eta gastu parekagarriak	2.125,00	2.908,34	-783,34				
8. Ez-ohiko gastuak				DIRU-SARRERAK GUZTIRA FUNTZIONAMENDU ERAGIKETAK	1.294.419,25	1.302.480,08	-8.060,83
9. Sozietateen gaineko zerga							
FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETEN GASTUAK GUZTIRA	1.294.419,25	1.301.850,13	-7.430,88				
FONDOEN ERAGIKETAK				FONDOEN ERAGIKETAK			
1. Kapitaleko diru-laguntzen murrizpenak	67.837,75	67.217,24	620,51	1. Fundatzaile eta bazkideen ekarpenak			
2. Ibilgetuaren hazkundera		3.100,95	-3.100,95	2. Kapitaleko diru-laguntzen hazkundera			
a) Zorrak ezartzeko eta gauzatzeko gastuak				3. Ibilgeturen murrizpenak	68.938,27	66.277,06	2.661,21
b) Ondare Historikoko ondasunak		3.100,95	-3.100,95	a) Zorrak ezartzeko eta gauzatzeko gastuak			
c) Ibilgetze materialak				b) Ondare Historikoko ondasunak			
d) Ibilgetze immaterialak		2.626,39	-2.626,39	c) Ibilgetze materialak	2.824,87		2.824,87
3. Izakinen hazkundera		2.020,53	-2.020,53	d) Ibilgetze immaterialak	66.113,40	66.277,06	-163,66
4. Finantza-inbertsioen hazkundera				4. Izakinen gutxipenak			
5. Diruzaintzaren hazkundera		2.020,53	-2.020,53	5. Finantza-inbertsioen murrizpena		365,00	-365,00
6. Funtzionamendu-kapitalaren hazkundera				6. Diruzaintzako gutxipenak	2.977,87		2.977,87
7. Arriku eta gastuetarako horniduren hazkundera	6.296,93	23.287,98	-16.991,05	7. Funtzionamendu-kapitalaren gutxipenak	2.218,54	30.981,08	-28.762,54
8. Zorren murrizpenak				8. Arriku eta gastuetarako horniduren hazkundera			
				9. Zorren hazkundera			
FONDO ERAGIKETEN GASTUAK GUZTIRA	74.134,68	98.253,09	-24.118,41	FONDO ERAGIKETEN DIRU-SARRERAK GUZTIRA	74.134,68	97.623,14	-23.488,46
AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA	1.368.553,93	1.400.103,22	-31.549,29	AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK GUZTIRA	1.368.553,93	1.400.103,22	-31.549,29

Orain, aurreko taula oinarritzat hartuta, 2021eko sarrera eta gastuen aurrekontuaren eta 2021eko gauzatzearen arteko desbideratzeak aztertuko ditugu. Horretarako, lehendabizi, aurreikusitako sarreretan gertatutako desbideratzeak aztertuko ditugu; izan ere, desbideratze horiek aurreikusitako gastuetan gertatzen direnak baldintzatzen dituzte.

SARRERAK:

Funtzionamendu-eragiketak:

1.a. Erabiltzaileen eta kideen kuotak. Fundazioak bezeroei fakturatutako zenbatekoak barne hartzen ditu.

Aurrekontua: 488.411,59 € - Gauzatua: 557.501,88 € - Desbideratzea: -69.090,29 €

Atal horretan 69.090,29 euroko desbideratzea dago; hau da, zenbateko hori gehiago fakturatu da.

Fakturazio aurreikuspenari dagokionez, 2020 urteko egoera kontutan izanik, aurreikuspenak oso tentuz egin ziren eta azkenean aurreikusia baino %14 gehiago fakturatu da, batez ere, 2021eko bigarren seihilekoan enpresei emaniko formakuntzari esker.

1.b. Sustapen, babesle eta laguntzaileen eskutik jasotako sarrerak. Fundazioak laguntzaile eta babesleen eskutik jasotako zenbatekoak barne hartzen ditu.

Aurrekontua: 105.493,97 € - Gauzatua: 77.674,57 € - Desbideratzea: 27.819,40 €

Atal honetan 27.819,40 €-ko desbideratzea dago; hau da, zenbateko hori gutxiago sartu da sustapenen, babesleen eta laguntzaileen kontzeptuan, ezin izan delako itxi laguntzaile berri bat erakartzea eta beste laguntzaile baten ekarpena murriztu delako.

1.c. Dirulaguntza, dohaintza eta legatuak. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta ARKAUTE Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako dirulaguntzak; baita HOBETUZ eta Fundación IRIPIAK IIIA erakundeen eskutik jasotako laguntzak ere.

Aurrekontua: 700.513,69 € - Gauzatua: 667.014,88 € - Desbideratzea: 33.498,81 €

Atal horrek 33.498,81 euroko desbideratzea du; hau da, kontzeptu horretan zenbateko hori gutxiago jaso dugu. Murrizketa hori ARKAUTEtik jasotzeko aurreikusitako diru-laguntza osatu ez delako gertatu da.

3. Ez-ohiko siru-sarrerak. Izenak dioen moduan, ohikoak ez diren diru-sarrerei dagokio.

Aurrekontua: 0,00 € - Gauzatua: 288,75 € - Desbideratzea: -288,75 €

288,75 eurotako desbiderapen hori aurrikusi gabeko diru-sarrera batzuei dagokie.

4. Finantza-sarrerak. Fundazioak finantza-erakundeekin dituen kontuetako interesak.

Aurrekontua: 0,00 € - Gauzatua: 0,00 € - Desbideratzea: 0,00 €

Atal honek ez du desbideratzerik.

Funts-eragiketak:

3.c. Ibilgetu-murrizketak. Ibilgetu materialak. Partida honetan ibilgetu materialaren aldaketak jasotzen dira.

Aurrekontua: 2.824,87 € - Gauzatua: 0,00 € - Desbideratzea: 2.824,87 €

Atal honek 2.824,87 euroko desbideratzea du; hau da, ibilgetu materiala murriztea aurreikusita bazegoen ere, murrizketa hori ez da gauzatu.

3.d. Ibilgetu-murrizketak. Ibilgetu inmaterialak. Partida honetan ibilgetu inmaterialaren aldaketak jasotzen dira.

Aurrekontua: 66.113,40 € - Gauzatua: 66.277,06 € - Desbideratzea: -163,66 €

Atal honek 163,66 eurotako desbideratze bat ematen du.

5. Finantza-inbertsioen murrizketa: Partida honetan 2020ko abenduaren 31ko eta 2021eko abenduaren 31ko saldoen arteko aldea jasotzen da.

Aurrekontua: 0,00 € - Gauzatua: 365,00 € - Desbideratzea: -365,00 €

Atal honetan aurreikusita ez zegoen 365 euroko murrizketa eman da.

6. Altxortegiko jaitsiera. Partida honetan 2020ko abenduaren 31ko eta 2021eko abenduaren 31ko altxortegiko saldoen arteko aldea jasotzen da.

Aurrekontua: 2.977,87 € - Gauzatua: 0,00 € - Desbideratzea: 2.977,87 €

Atal honek 2.977,87 euroko desbideratzea du: 2021 urterako altxortegian aurreikusitakoa jaitsiera ez bait da gauzatu.

7. Funtzionamendu-kapitalaren gutxipena. 2020ko abenduaren 31ko eta 2021eko abenduaren 31ko saldoen arteko aldea, balantzeko 4. taldeko eskubide eta betebeharrei dagokienez.

Aurrekontua: 2.218,54 € - Gauzatua: 30.981,08 € -Desbideratzea: -28.762,54 €

Atal honek 28.762,54 euroko desbideratzea du; hau da, aurreikusita zegoena baino funtzionamendu-kapitalaren murrizpen handiago bat eman da.

GASTUAK:

Funtzionamendu-eragiketak:

2. Ustiapen kontsumoak. Ekitaldiko ustiapeneko kontsumoak.

Aurrekontua: 0,00 € - Gauzatua: -2.652,69 € - Desbideratzea: 2.652,69 €

Atal honetan 2.652,69 euroko desbideratzea dago, inbentarioa handitu egin delako.

3. Pertsonal-gastuak. Honako hauek barne hartzen ditu: soldatak eta lansariak, enpresaren konturako gizarte-segurantza eta beste gizarte-gastu batzuk.

Aurrekontua: 705.551,74 € - Gauzatua: 655.783,44 € - Desbideratzea: 49.768,30€

Atal honek 49.768,30 euroko desbideratzea du; hau da, pertsonal-gastuetan zenbateko hori gutxiago gastatu da. Langileen atalean gastatutako zenbateko txikiago hori Sueskolako langile batek aurkeztutako eszedentzia-eskaerari zor zaio, 2021ean ez baita da lan postu hori ordezkatu.

4. Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak. Ibilgetu material eta inmaterialeko elementuen benetako balio-galera adierazten du.

Aurrekontua: 93.938,28 € - Gauzatua: 101.078,86 € - Desbideratzea: -7.140,58 €

Atal honek 7.140,58 euroko desbideratzea du; hau da, zenbateko hori gehiago amortizatu da.

5 Beste gastu batzuk. Atal honetan hainbat partida sartzen dira: konponketak eta kontserbazioa, profesional independenteen zerbitzuak, aseguruetak primak, publizitatea eta propaganda, hornidurak eta beste zerbitzu batzuk.

Aurrekontua: 492.804,23 € - Gauzatua: 544.732,18 € - Desbideratzea: -51.927,95 €

Atal honek 51.927,95 euroko desbideratzea du; hau da, zenbateko hori gehiago gastatu da. Hori, zehazki, Fundazioak prestakuntza-jarduera handiagoa izan duelako eta emaniko ikastaro motagatik izan da.

7. Finantza-gastuak eta gastu parekatuak. Fundazioaren kontuek 2021eko ekitaldian sortutako gastuak.

Aurrekontua: 2.125,00 € - Gauzatua: 2.908,34 € - Desbideratzea: -783,34 €

Atal honek 783,34 euroko desbideratzea du; hau da, finantza-gastuak 783,34 euro gehiago izan dira. Fundazioak urte honetan jasan dituen diruzaintzako tentsioen ondorioz.

Funts-eragiketak:**1. Kapital-dirulaguntzen murrizketak**

Aurrekontua: 67.837,75 € - Gauzatua: 67.217,24 € - Desbideratzea: 620,51 €

Atal honek 620,51 euroko desbideratzea du; hau da, kapital-dirulaguntzen murrizketa aurreikusitakoa baino txikiago izan da.

2.c.. Ibilgetuaren hazkundera. Ibilgetu materiala

Atal honetan ibilgetu materialaren aldaketa jasotzen da.

Aurrekontua: 0,00 € - Gauzatua: 3.100,95 € - Desbideratzea: -3.100,95€

Atal honek 3.100,95 euroko desbideratzea du; hau da, aurreikusi gabeko ibilgetu materialaren igoera bat eman.

3. Izakinen hazkundera. Partida honetan 2020ko abenduaren 31ko eta 2021eko abenduaren 31ko saldoen arteko aldea jasotzen da.

Aurrekontua: 0,00 € - Gauzatua: 2.626,39 € - Desbideratzea: -2.626,39 €

Atal honek 2.626,39 euroko desbideratzea du; hau da, 2021. urtearen amaieran izakinetan zenbateko hori gehiago zegoen.

6. Diruzaintzaren hazkundera. Partida honetan 2020ko abenduaren 31ko eta 2021eko abenduaren 31ko altxortegiko saldoen arteko aldea jasotzen da.

Aurrekontua: 0,00 € - Gauzatua: 2.020,53 € - Desbideratzea: -2.020,53 €

Atal honek 2.020,53 euroko desbideratzea du, hau da, 2021. urtearen amaieran altxortegian zenbateko hori gehiago zegoen.

8. Zorren murrizketak. 2020ko abenduaren 31ko eta 2021eko abenduaren 31ko saldoen arteko aldea, ordaintzeko zorrei dagokienez.

Aurrekontua: 6.296,93 € - Gauzatua: 23.287,98 € - Desbideratzea: -16.991,05 €

Atal honek 16.991,05 euroko desbideratzea du; zorrak hasieran aurreikusitakoa baino gehiago murriztu direlako.

35.- Hornitzaileei atzeratutako ordainketei buruzko informazioa (uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarria, informatzeko eginbeharrari buruzkoa)

Hona hemen 2020ko eta 2019ko ekitaldietan eskatutako informazioa, banakatuta:

	2021eko ekitaldia	2020ko ekitaldia
	Egunak	Egunak
* Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	32	31

* Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia = $\frac{\text{Hartzekodun komertzialen batez besteko saldoa}}{\text{Erosketa garbiak eta kanpo-zerbitzuen gastuak}} \times 365$

36.- Jardueraren helburuak eta adierazleak

- 2021ko xehetasuna

Helburua	Adierazlea	Zenbatespena	
		Aurreik.	Egind.
Ikasle kopurua	Ikasle kopuruaren taula	4.000	3.229
Prestakuntzaren kalitatea	Gogobetetze-maila neurtzeko inkestak	9,00	9,30
Sentsibilizazio-kanpainak	Sentsibilizazio-kanpainaren kopurua	6,00	6,00

- 2020ko xehetasuna

Helburua	Adierazlea	Zenbatespena	
		Aurreik.	Egind.
Ikasle kopurua	Ikasle kopuruaren taula	4.000	2.372
Prestakuntzaren kalitatea	Gogobetetze-maila neurtzeko inkestak	9,00	9,21
Sentsibilizazio-kanpainak	Sentsibilizazio-kanpainaren kopurua	4,00	6,00

37.- INBENTARIOA

ELEMENTUAREN AZALPENA	Eskurapen data	Eskurapen data	Aldakuntzak balioztapenean	Narriduraren, amortitzazioen eta abarren ondoriozko galerak	Bestelako egoerak (G,F,D) (G, F,D)*
FUNDAZIOAREN WEBGUNEA	26-06-10	2.500	-	(2.500)	F
BARRUKO INFORMATIKA -ERP	15-09-10	39,200	-	(39,200)	F
ERAIKUNTZA LAGUNTZA	22-06-15	1,942,360	-	(429,736)	F
BARRUKO INFORMATIKA -ERP	30-12-20	818	-	(164)	F
IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA		1.984.878	-	(471.600)	
SARRAIK ETA SEGURTASUNA	31-10-09	8.118	-	(8,118)	F
PRESENTZIA KONTROLA	31-10-09	970	-	(970)	F
AULKIAK ETA MAHAIK	31-10-09	4,200	-	(4,200)	F
ALDAGELEETAKO ALTZARIAK	31-10-09	1,743	-	(1,743)	F
ARMAIRUAK ETA EGITURA FINKOAK	31-10-09	2,342	-	(2,342)	F
AULKIAK ETA MAHAIK	31-10-09	1,026	-	(1,026)	F
LEHEN SOROSPENEO MATERIALA	31-10-09	1,312	-	(1,312)	F
ERAMANGARRIAK ETA PANTAILAK	31-10-09	2,747	-	(2,747)	F
ERAMANGARRIAK ETA PANTAILAK	18-03-10	732	-	(732)	F
EGITU METALIKOAK	28-09-10	956	-	(956)	F
ITZALTZEKO ETA PREBENITZEKO MATERIALA	20-12-10	8,352	-	(8,352)	F
BOTILETARAKO ARMAIRUA	20-01-11	485	-	(485)	F
ARNASKETAKO MASKARAK	24-02-11	819	-	(819)	F
MAHUKETARAKO ARMAIRUA	28-02-11	1,063	-	(1,063)	F
ARNASKETAKO MASKARAK	09-06-11	819	-	(819)	F
INSTALAZIOA ELEKTRIKOAREN ERREGULAGAILUA	04-07-11	3,935	-	(3,935)	F
ORDENAGAILU PANTAILA	22-02-12	114	-	(114)	F
ERREGULAGAILUAK ETA SY-ITZALGAILUAK	08-02-13	4,815	-	(4,815)	F
BESORAKOA, MASKARAK, ARNAS EKIPAME.	24-09-14	22,166	-	(22,166)	F
ESKUZKO HAIZAGAILUAK	30-09-14	3,652	-	(3,652)	F
BEROSAKO MAHUKAK	21-11-14	17,783	-	(17,783)	F
KOMUNIKAZIO EKIPAMENDUAK	15-12-14	3,879	-	(3,879)	F
MASKARAK	13-03-15	2,406	-	(2,406)	F
MASKARAK	17-04-15	310	-	(310)	F
MASKARAK	23-04-15	2,689	-	(2,689)	F

ELEMENTUAREN AZALPENA	Eskurapen data	Eskurapen data	Aldakuntzak balioztapenean	Narriduraren, amortitzazioen eta abarren ondoriozko galerak	Bestelako egoerak (G,F,D) (G, F,D)*
ESKU-ARGIRAKO EUSKARRIAK	29-04-15	393	-	(393)	F
BERO-GANBERA	02-07-15	3.580	-	(3.580)	F
ARNASKETAKO MASKARAK	22-07-15	548	-	(371)	F
KARTZELATIK LIBRATZEKO MATERIALA	22-07-15	3.780	-	(3.780)	F
BOTILAK ETA MASKARAK	28-07-15	11.927	-	(11.927)	F
BESORAKOA, MASKARAK, ARNAS EKIPAME.	01-10-15	22.299	-	(22.299)	F
METALEZKO APALATEGIAK	22-12-15	1.037	-	(933)	F
BISOREAK	23-02-16	854	-	(854)	F
ALDAMIOA	02-03-16	472	-	(472)	F
XURGAPEN EKIPAM. IRAGAZKIA	09-03-16	4.634	-	(4.634)	F
IBILGAIL. INSTA.	08-06-16	1.864	-	(1.864)	F
BISOREAK	11-07-16	1.967	-	(1.967)	F
ADARKATZAILEAK	22-07-16	894	-	(894)	F
BPE ERAIKINAREN MAKETA	13-09-16	8.903	-	(8.903)	F
BERO-GANBERA	20-09-16	2.988	-	(2.988)	F
TRAMEX KANPOKO INSTALAZIOA	10-10-16	1.350	-	(1.350)	F
HARDW AREA	31-10-16	6.823	-	(6.823)	F
KASKOEN MATERIALA	16-12-16	379	-	(379)	F
MASKARAK	19-12-16	8.465	-	(8.465)	F
BESORAKOA, MASKARAK, ARNAS EKIPAME.	20-12-16	11.696	-	(11.696)	F
MAHUKAK	23-12-16	2.788	-	(2.788)	F
HAIZAGAILUA	28-01-17	645	-	(645)	F
TRAMEX-DORREA	05-06-17	3.684	-	(2.487)	F
EDUKIONTZIA	24-07-17	1.655	-	(1.655)	F
GARB. MATET.- LEHORGAILUAK	21-09-17	733	-	(458)	F
GARBIGAILU- LEHORGAILUAK	21-09-17	21.586	-	(13.761)	F
GARB. MATER-LEHORGAILUAK	04-10-17	600	-	(375)	F
ORDENAGAILUAK	07-11-17	3.725	-	(3.725)	F
MASKARAK	02-01-18	2.671	-	(2.671)	F
ESPLOSIMETROA	16-03-18	2.952	-	(2.768)	F
GIARIA	27-06-18	2.271	-	(1.987)	F
SU-ITZALGAILUAK	06-07-18	454	-	(397)	F
EUROZON	03-09-18	2.152	-	(1.748)	F
TALKIAK	07-09-18	8.819	-	(7.167)	F
KONTROLGELAKO ORDENAGAILUA	08-11-18	16.689	-	(13.212)	F
FOTOKOPIAGAILUA	21-11-18	1.147	-	(884)	F
MAHUKA BIRIBILKATZAILEA	20-09-19	4.730	-	(2.660)	F
DESFIBILADOREA	20-11-19	1.040	-	(568)	F
TEILATUKO LUBAKIA	10-12-19	6.126	-	(3.037)	F

ELEMENTUAREN AZALPENA	Eskurapen data	Eskurapen data	Aldakuntzak balioztapenean	Narriduraren, amortitzazioen eta abarren ondoriozko galerak	Bestelako egoerak (G,F,D) (G, F,D)*
OLANA	17-12-19	2.602	-	(1.301)	F
BIRIBILGUNEA	17-12-19	3.576	-	(1.788)	F
KE-MAKINA	18-12-19	6.531	-	(3.266)	F
DESKONTANMINAZIO-TALDEA	26-12-19	9.277	-	(4.639)	F
SUTEEN AURKAKO LANTZAK	27-01-20	3.007	-	(1.441)	F
ORDENAGAILUAK	31-01-20	584	-	(280)	F
ALDAGELETAKO EKIPAMENTUA	19-02-20	2.194	-	(494)	F
HARRASKA-PALANKA	17-03-20	867	-	(195)	F
KROKAGAILUAK	24-03-20	593	-	(222)	F
ERRESKATE MATERIALA	26-03-20	704	-	(264)	F
PNEUMATIKO OSAGARRIAK	20-04-20	3.170	-	(1.189)	F
PONPA GARBIKETA	17-06-20	1.426	-	(321)	F
KEAREN AURKAKO SISTEMA ERAMANGARRIA	25-09-20	483	-	(151)	F
DETEKTAGAILUAK MMPP	06-10-20	737	-	(215)	F
DETEKTAGAILUAK MMPP	06-10-20	1.347	-	(393)	F
ERRESKATE MATERIALA	24-10-20	657	-	(192)	F
FIIXAKETAK EGITEKO MAKINA	30-10-20	685	-	(200)	F
DESKONTANMINAZIO-TALDEA	15-11-20	1.931	-	(523)	F
PANTAILA INTERAKTIBOA	27-11-20	2.310	-	(626)	F
GALDARA ACS	31-12-20	11.051	-	(2.763)	F
GALDARA ACS	21-01-31	1.299	-	(298)	F
TRANSPORTER IBILGAILUA	21-02-15	5.956	-	(993)	F
SEAT LEON 9435 JLJ	21-03-15	9.529	-	(1.429)	F
HEDAPEN-ONTZIA	21-03-23	1.330	-	(249)	F
KFT-	21-09-07	14.174	-	(886)	F
BIZKARREKO ARNAS EKIPAMENDUA	21-09-20	2.960	-	(185)	F
GALLET KASKOAK	21-10-22	1.638	-	(68)	F
LANTZA	21-12-16	1.017	-	(10)	F
TOTAL INMOVILIZADO MATERIAL		368.389	-	(279.579)	
TOTAL GENERAL		2.353.267	-	(751.179)	

Zamak (G), norberaren helburuetarakoak (F), fundazioko zuzkidura (D)

38. 2021eko ekitaldiko gertakariak

2021ean, batez ere urteko lehen seihilekoan, ezin izan da prestakuntza-jarduerari osorik ekin oraindik Covid-19aren eragina handia zelako: enpresa mundutik datozen ikasleak ez dira ia 2021eko ekaina bitarte normaltasunez etortzen hasi, kutsatzearen beldur eta enpresan izan zitezkeen bajen beldurra handia izaten jarraitzen zuelako. Egoera horren ondorioz, 2021ean prestakuntza jaso duten pertsonak 3.200 baino gehixeago dira. Oraindik urrun dago 2019ko zifretatik.

Pertsona horiei prestakuntza eman ahal izateko, Fundazioak oso segurtasun-protokolo zorrotza bete du, eta horren ondorioz, ikastaro bakoitzean parte hartzen duten pertsonen kopurua murriztu egin behar izan da (segurtasun-edukierak eta -distantziak bete ahal izateko), beste prestakuntza-gela batzuk alokatu behar izan dira eta segurtasun-, garbiketa- eta desinfekzio-materialetan gastu handiak egin behar izan dira.

Enpresako langileen prestakuntzari eragin dio batez ere pandemiak 2021 urteko lehen seihilekoan. Suhiltzaile berrien eta birziklatzeko prestakuntza lehen aipatutako prebentzio-neurri guztiekin gauzatu ahal izan da.

Laguntzaileek eta babesleek egindako ekarpenei dagozkien diru-sarreraren atalari dagokionez, segidan lerrotatzen diren babesle eta laguntzaileen ekarpenak jaso dira: BABESA SUZAI SA, Lavandería LIZARRA SL, Productos MESA, ORKLI SCoop., BIDE LAN SA eta CAF SA. Atal honetan, kolaboratzaile eta babesle berriak sartzeko ahaleginak egiten jarraitu behar da, lan zaila baita oraindik.

Aipaturiko prestakuntza-jarduera horiez gain, Fundazioak, dagozkion helburuak betetzeko, 2021ean hainbat sentsibilizazio-kanpaina egin ditu.

Urtarrilari ekiteko, neguko suteen prebentzio kanpainari dagozkion mezuak argitaratzen dira. Hotza eta berorri burrunkatzeko erabiltzen diren beroztatze sistemen erabilera okerrak eragindako suteak ekiditea da neurri hauen helburua.

Otsailen berriz, baso suteen arriskuagatik emandako abisu hori batzuen berri ematen zaio gizarteari. Naiz eta baso suteak udarekin lotzen diren, neguan ere berauek emateko arriskua altua izan daiteke. Abisu hauek martxoan eta apirilaren berriro errepikatzen dira.

Ekainean, San Joan bezperako suen ondorioz sortzen diren arazoak direla eta, informazio-kanpaina bat egiten da gizarte-sareetan, era horretako ekitaldietan ezbeharrak prebenitzeko aholkuak emateko.

Uztaila bat dator barbakoa egiteko garaiarekin. Jarduera hau, behar diren prebentzio-neurriak hartuta egiten ez bada, arriskutsua izan daiteke eta baso-suteak eragin ditzake. Hilabete honetan, ahaleginak gai horretan gauzatzen dira.

Abuztuan, herritarrei udaran baso-suteak prebenitzeko dei egiteko kanpaina antolatu du. SUESKOLAK, beste behin, gizarte prebentzio-neurri gutxi batzuek hondamendi ekologiko eta ekonomikoak gertatzea eragotz dezaketela konturatzeko kanpaina berri bat egin zuen. Deialdi hauek irailen eta urrian ere errepikatzen dira.

Urrian eta azaroan, jendea udaran itzalita egon diren tximiniak pizten hasten denean, Fundazioak informazio-kanpaina bat martxan martxan jartzen du gizarte-sareetan, urtero tximinietan gertatzen diren suteak prebenitzeko aholkuak emateko.

Azaroan eta abenduan berriz, etxean neguko suteak prebenitzeko 2012an hasitako kanpainaren beste edizio bat egiten da gizarte-sareetan. Kanpainaren helburua negua heltzen denean etxeetan ezbehar gutxiago gertatzea da.

Abenduan bertan, Urte Zahar Gauari begira, Sueskolak pirotekniaren erabileraren ondorioz gau horretan gertatzen diren gorabeherak saihesteko gomendioak argitaratzen ditu.

Kanpaina horiez guztiez gain, 2021ean SUESKOLAK suteak prebenitzeko kontzientziazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-lanak egiten jarraitu du hainbat kolektiborekin: Ordiziara Lehen Hezkuntzako haurrak etorri dira ikastetxe eta udalekueetatik dibulgazio-jardueretan parte hartzera, baita unibertsitateko eta ikastetxe nagusietako gazteak ere.

Gainera, SUESKOLAK gero eta presentzia handiagoa du gizarte-sareetan eta Facebook, Twitter eta Youtubeko kontuetara jende asko sartzen da Fundazioak zer prestakuntza-lan egiten duen eta suteak prebenitzeko zer aholku ematen dituen ikustera.

2021eko ekainaren 9ko GAOn ekainak 8ko 7/2021 Foru Dekretua argitaratu zen, interes orokorreko xedeen eremuan 2021an mezenasgoko lehentasunezko jarduerak deklaratzeko dituen. Foru dekretu horren 7. artikuluan lehentasunezko zat jotzen dira, 2021erako, suteen prebentzioaren arloan egiten diren jarduerak. Esparru horretan sartzen da Fundazioaren jardura.

39. 2021eko abenduaren 31 ondoko gertakariak

2022 ekitaldia COVID-19 pandemiaren eraginpean hasi da oraindik ere, baina "normaltasun berria" izkinatik bueltan dagoenaren sententziarekin, eta badirudi Fundazioaren prestakuntza-jardura 2019ko mailetara itzuli dela.

2022ko urtarrilaren 2an berri egin dira 2021eko abenduaren 31ra arte indarrean zeuden lankidetzak hitzarmen eta babes-kontratuak, hitzarmen eta kontratu berriak sinatuz formalki berri behar zirenak.

Jardura-ildo horretan, Patronatuak 2021eko urriaren 21ean egindako bileran onartu ondoren, honako hitzarmen eta kontratu hauek sinatu dira:

- ORKLI, S.Coop. Data: 2022/01/21 – A modalitateko laguntzailea.
- CAF, S.A. Data: 2022/01/02 – B modalitateko laguntzailea.
- "Blas de Lezo" Pasaiko Itsas Arrantza BHI. Data: 2022/01/02.
- LAVANDERIA LIZARRA, S.L. Data: 2022/01/17 – Publizitate-laguntzailea.

Automatikoki berritzen diren hitzarmen eta kontratuek ez dute formalitate horien beharrik.

Arestian aipaturako babesletza-hitzarmen eta -kontratuez gain, aurreikusita dago apirilaren hasieran beste lankidetzak-hitzarmen bat sinatzea ARKAUTE Academia Vasca de Policía y Emergencias enpresarekin 2022ko ekitaldirako.

Jardura instituzional horrekin batera, Sueskolak ematen duen prestakuntzaren ikuspegitik, 2022ko urtarrilean eta otsailean jardura-maila oso altua eman zen, bai suhiltzaileen prestakuntzan (batez ere sartu berriko ikastaroak), bai nautika- eta arrantza-eskoletako ikasleen prestakuntzan ere.

Bestalde, 2022ko otsailaren 24an Ukrainiako inbasioa hasi zen Errusiaren aldetik. Gertaera honek, gizatragedia bat dena, era nabarmenean eragingo du ziurrenik mundu mailako jardura ekonomikoan, eta ondorioz, litekeena da Fundazioaren etorkizuneko eragiketa eta emaitzetan nolabaiteko eragina edukitzea.

Aurreko hori salbu, ekitaldia itxi zenetik urteko kontu laburtu hauek formulatu diren datara arte ez da hauengan eragin esanguratsurik izan dezakeen ondorengo gertaerarik eman.

SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA IFK G75005306

2021ko EKITALDIKO URTEKO KONTU LABURTUEN ONESPENA

SINATZAILEAK	BERTARATUAK	ORDEZKARI BIDEZ
Presidentea Eider Mendoza Larrañaga		
Presidenteordea Josu Idigoras Eguia		
Kidea Arantxa Ariztimuño Larraza		
Kidea Miguel Ángel Crespo Rico		
Kidea Iker Estensoro Sarasola		
Kidea M ^a Victoria Zabala Fernández		

EGINBIDEA.- Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioko idazkaria naizen honek emana, zera agerrarazteko: agiri hau, "URTEKO KONTUEN LIBURUA. Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa. 2021eko EKITALDIA" deitua, eta hau barne 38 orrialde dituen, 2022ko ekainaren 23ko bilera onartu zuela Fundazioko Patronatuak aho batez; eta bilera horretako aktan l. eranskin gisa jaso dela.

Donostia, 2022ko ekainaren 23a.

Sin.: _____


EIDER MENDOZA LARRAÑAGA